

BATERA FOROKO IRITZI TRUKAKETEN SINTESIA

“IPAR EUSKAL HERRIKO LURRALDE KOLEKTIBITATEA ASMA DEZAGUN”

2025EKO AZAROAREN 22AN, BAIONAKO ARTEEN HIRIAN.

AITZIN-PROIEKTU SENDOA

Gure lurraldearen bilakaera instituzionala gogoetatzen hasteko, Baterak, gaur egun dugun instituzioaren gainean oinarritzea proposatu zuen, eta besteak beste Euskal Hirigune Elkargoan. Parte hartzaileen gehiengo handi batek begi onez ikusi du abiapuntu hori. Euskal Elkargoa oinarri sendo gisa ikusten da, instituzio berria eraikitzeko zoru garrantzitsua, gogoeta hutsetik hasi behar izan gabe. Orain arteko esperientziek balio behar digute egungo frustrazioei erantzun eta herritarren nahiak ahal bezain ongi betetzeko. Urrats pragmatiko horri gehitu behar zaio Konstituzioaren 72. artikulua eskaintzen duen aukera, hots Elkargotik Lurralde kolektibitateara pasatzeko posibilitatea, gaur egun indarrean den legediarekin eta konstituzio erreforma egin behar izan gabe. Datu juridiko horrek desmartxa errexten du eta proiektua egingarriago egiten du.

LURRALDEAREN EGIN AHALMENA SENDOTU

Ipar Euskal Herriak duen eragite ahalmena sendotzeko, estatus bereziko lurralde kolektibitatearen aterabidea da eztabaidatik naturalki atera dena. Parte hartzaileek hori argiki azpimarratu dute, bilakaera instituzional horrek ondokoak eskatzen dituelarik: eskumen gehiago, baliabide gehiago, eta lurraldeetan errotuagoa den ekintza publikoa.

ESKUMEN GEHIAGO

Lyongo metropolia eta Alsaziako europar kolektibitatea aurkeztu dira eta inpaktu handia izan dute parte hartzaileengan, eredu hauek eskumenak “à la carte” hartzera ahalbidetzen baitute: **gure lurraldeak eskumenak Departamendutik, Eskualdetik, baita ere Estatutik hartzeko parada bailuke. Departamenduak duen eskumen blokeaz gain (sozial arloan bereziki), lan atelierretan etxebizitza, elebitasuna, mugaz gaindiko politikak, laborantza eta garapen ekonomikoa azpimarratu dira.** Gogoeta pistak ere atera dira ondoko gairen inguruan: klima eta energia, garraioa, goi mailako hezkuntza eta ikerketa, baita ere kultura eta tokiko informazioa. Departamentuko eskumen guztiak instituzio bakarrean integratzeak **hostopil administratiboa sinplifikatzeko** balio lukeela azalarazi da, baina kasu eginez egungo prozedura administratiboen konplexutasuna eta pisua ez errepikatzeko. Helburua argia da: lurraldearen egin ahalmena sendotzea, arinago, eraginkorrago eta azkarrago ibiliko den instituzio baten bidez beharrei erantzuterakoan.

BALIABIDE GEHIAGO

Baliabideak hertsiki lotuak dira konpetentziei. Hona parte hartzaileek Lyongo adibidetik gogoan atxiki dutena: **biztanlekako diru kopurua beste kolektibitateena baino anitzez handiagoa da**. Haien ustez, instituzio berriaren indar hartzea eskumenei lotu finantzamenduen transferentziatik pasatzen da, autonomia fiskalatik ez bada. Aipatu da ere Lurralde kolektibitateak europar fondoak kudeatzeko beharra, bereziki landa eremuko garapenari lotutakoak.

EKINTZA PUBLIKO KONKRETUA LURRALDEETAN

Lurraldeetan sustraitzea ere anitz aipatu da. Parte hartzaileek **lurralde poloetan oinarritu hurbileko ekintza garatzearen garrantzia** azpimarratu dute, lurralde polo hauek egungoak edo bermoldatuak liratekeelarik. Ipar Euskal Herriko bizi eremuen arteko oreka atxikitzearen garrantzia ere oroitarazi dute, baita ere landa eremuen eta hiri eremuen arteko desoreka saihesteko aktibitateen garapenean inbestimendu publikoarena. Inguruko lurraldeekiko harremanak ere aipatu dira (hego Euskal Herriarekin, Biarnorekin, Landekin), artikulazio eta kooperazio aukera gisa.

Bestalde, Estatuko zerbitzuen, zirkunskripzio administratiboen eta erakunde publikoen berrantolaketa beharrezkotzat ikusi da, Kolektibitate berriaren perimetroarekin bat egiteko, egiturek lurraldearen errealitate geografiko eta instituzionalarekin bat egiteko. Departamendu zenbaki berezia sortzearen ideia ere atera da, prozedurak sinplifikatu eta lurraldean politika publikoen koherentzia sendotzeko.

AITZINAMENDU DEMOKRATIKOA

SUFRAGIO UNIBERTSALA

Parte hartzaileentzat, Estatus bereziko lurralde kolektibitatea sortzea **tokiko demokrazia sendotzeko aukera bezala ikusten da. Asanblada deliberatzailea sufragio unibertsalaren bidez hautatzearen inguruan adostasun zabala izan da**. Hauteskunde molde hori aitzinamendu inportantetzat jotzen da, hautesleek hautetsiak zuzenki hautatuko bailituzkete, lurralderako proiektu desberdinak konparatuz. Hala ere, hautatzeko molde horren modalitateak ez dituzte argi parte hartzaileek: aldi bereko bozka beste bozka batekin, hauteslegoaren definizioa, hautesbarruti bakarra edo kantonamendukako eremuak, gehiengotasuna edo proportzionala, itzuli bakarreko edo biko bozka... Beste abantaila: genero parekotasuna segurtatuko luke instituzio berriaren gobernantzan. Hautesleek programak eta etorkizuneko ikuspegiak konparatzen ahalko lituzketenez, sufragio mota hori instituzioei buruz dagoen ezjakintasuna eta mesfidantza gainditzeko tresna gisa ikusten da.

BIGARREN ASANBLADA

Instituzio berri horretan herrien ordezkaritza ere luze eta zabal aipatu da. Jean-Pierre Massiassek aurkeztu **bigarren ganbara** sortzeko posibilitateak jendea inspiratu du. Batzuek auzapezentzako, herrien ordezkarietarako edota beste mailetakoko hautetsiei irekitako lekua ikusten dute hor (lehengo Hautetsien Kontseilua bezala). Beste batzuek jendarte zibileko ordezkariak partez edo

osoki osatu gunea irudikatzen dute. Erronka bikoitza da: lurraldeekiko lotura mantentzea parte hartzeko forma berriak asmatuz. Lan atelierretatik atera dena ere da bigarren ganbara horrek egiazko ahalmenak izan behar dituela, politika publikoak eraikitzerakoan saihestezineko gunea izan dadin.

HERRITARREN TOKIA

Paraleloki, **instituzio berrian herritarren tokia** anitz eztabaidatu da. Parte hartzaileek botere publikoak herritarrengana hurbiltzeko garrantzia aipatu dute, dispositibo konkretuetan oinarrituz. Hainbat pista aipatu dira: Garapen Kontseiluaren rola sendotzea, bigarren ganbara jendarte zibileko eragileei zabaltzea, lurralde polo mailako herritar kontseiluak sortzea, politika publikoen ko-eraikuntza sakontzea batzorde tematiko irekien bidez (egungo batzorde estramunizipalean bezala). Parte hartzaileek diote herritar parte hartzeak ondorio konkretuak izan behar dituela, sinbolismo hutsean ez gelditzeko. Bestalde, azpimarratzen dute instituzioaren indar hartzea elkarte eta herritar dinamikan oinarritu beharko dela, dinamika hori azkartzeko eta ez ordezkatzeko.

Euskal Elkargoaren sortzea gogoan, parte hartzaileek argi dute **jendarte zibilaren aldetik garai hartan bezalako inplikazioa** beharko dela, lurraldeari, herriei eta hauen ordezkariari egiazko aitzinamendua ekarriko dien instituzioa asmatzeko. Inplikazio horrek jendarte zibilaren aktibatzea ahalbidetu beharko du, eta herritar eta hautetsi belaunaldi berriak bultzatu.

PROIEKTUA GAUZATZEKO GAINDITU BEHARREKO ERRONKAK

Foroan suhertasuna hor bazen ere, parte hartzaileek argi dute **proiektuaren obratzea trabatzen ahalko luketen elementuak** badirela, eta prefeturaren administrazioarekiko harremana bereziki: batzuek dudak dituzte horrek bilakaera lagunduko duela, besteak beste Paueko departamenduko egituretan historikoki sustraitua baita. Parlamentarien sustengua ere aipatu da, eta parte hartzaileek aliatuak mobilizatzeko beharra azpimarratu dute, Lurralde kolektibitatea sortzeko beharrekoa den legea bultzatzeko.

BURURATZEKO

PROIEKTU AUSARTA, ERAGILE GUZIEN ARTEAN ERAIKITZEKO

Baterak antolatu Foroan berriz ikusi da borondate kolektiboa badela ipar Euskal Herriaren gobernantza Estatus bereziko lurralde kolektibitate eramateko, kolektibitate hau eraginkorragoa, demokratikoagoa eta tokiko errealitateei egokitua izan beharko delarik. Ondoko urratsek koadro juridikoa trenkatu beharko dute, eskumen eta finantzamendu eredua findu eta, bereziki, lurraldeko eragile guziei kontzertazio zabala ireki. Orain erronka da nahi hori proiektu konkretu, inklusibo eta itzaropentsu bilakatzea, herritarren beharrei erantzuteko.